



1. Haur Literaturaren txokoa

Uda aurreko zenbaki honetan irakurtzeko hiru proposamen luzatzen dizkizuegu: horietako bi oso ezagunak dira beste hizkuntza batzuetan, eta, orain, euskaraz ere baditugu; hirugarrena, euskaraz labetik atera berri da, baina haren egilea oso ezaguna dugu aspaldidanik. Lehenengo biak mami handiko liburuak dira, eta haurrentzat gai sakonak aurkezten dituzte, hurbiltasunez. Hirugarrenak, berriz, jolaserako eta ametsetarako bidea aurkezten du. Udan denbora pasa jardun, eta datorren ikasturtean zehar gozatzeko aukera duzue bertan.

[RAMOS, Mario. *Kili txikia*. Ttartalo, 2013](#)

[KERR, Judith. *Meriendatzera etorri zen tigrea*. Pamiela-Kalandraka, 2010](#)

[ROSEN, Michael; OXENBURY, Helen. *Hartza ehizatza goaz*. Pamiela-Kalandraka, 2013](#)

2. Egitasmoa martxan

Bost urte bete ditu BULARRETIK MINTZORA egitasmoak, eta, herriz herri, irakurtzeko ohiturak sustatzen saiatu gara bitarte honetan. Kalitatezko euskal literatura eskaintzea izan da egitasmoaren erronketako bat, “*haurrentzat edozerk balio du*” eta horren antzeko baieztapenak baztertzeko ahalegin sutuan. Gainera, helburu dugu tradiziozko material eguneratua biltzea, eta material hori ezagutzeko aukera izan dute guraso, irakasle eta bibliotekari askok. Horretaz gain, egungo euskal literatura bultzatu eta zabaltzeko asmoz, bibliografia zaindu bat eskaini zaie.

Orobat, bere ibilbidean Haur Literatura eskoletan erabiltzeko modu sistematizatu bat sortzen eta azaltzen saiatu da, [lan isilean](#). Oinarrizko lana egin dago, eta, laister, ikastetxeetan egitaraua hedatzearen lehen emaitzak jasotzen hasiko gara. Egitaraua oso zabala da, baliabideak ikasi egin behar dira, liburuak ezagutu eta geletara ekartzeko ohitura hartu behar da... Beraz, denbora behar da egitarau honen ondorioak ikusteko.

3. Hausnarketa gunea

Badakizue urtero gure bibliografia berrikusi, eguneratu eta osatu egiten dugula. Lan horren abiapuntua da Galtzagorriko Irakurketa Mintegiak egiten duen liburu guztien irakurketa eta balorazio lana. 2012an argitaratutako liburuen irakurketa bukatzeaz dago. Mintegiaren ustez Haur Hezkuntzarako argitaratu diren libururik interesgarrienak ezagutzeko aukera duzue zerrenda honetan. Horietatik liburu asko erabiliko ditugu datorren irailean “*Bibliografia Sailkatua 2*” osatzeko orduan. Baina hori datorren bitartean, bertan duzue [“2012ko liburu interesgarrien zerrenda”](#).

4. Ongi pasatzeko!

Gaurkoan, ikasturteari bukaerara emateko, bi blog ekartzen dizkizuegu egitasmoaren inguruan egiten diren ekintzak ikusteko. Langaitz Ikastola eta Orixe Ikastolako Haur Hezkuntzako haurrak ikusiko ditugu horietan antzerkiak egiten, poesiak errezitatzen, kantari eta sortzen ari diren gaiak azaltzen. Guretzat dibertigarria izan da, ea zuek ere ongi pasatzen duzuen Erreterria eta Donostiako haur hauen kontuekin.

Orixe Ikastola: [5 urte A](#) eta [5 urte B](#)

Langaitz Ikastola: [BM](#) eta [Kukuruku](#)